

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

IRURAKO UDALA

*Iragarkia*

Udal Batzarrak, 2025eko irailaren 30ean egindako bilkuran, Irurako udalerrian, desgaitasuna/mendekotasuna izan eta tratamendua behar duten pertsonen familiei edo interesatuei dirulaguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzaren aldaketa onartzea erabaki zuen.

Jendaurrean jarrita egon eta inolako erreklamaziorik eta oharpenik jaso ez denez, erabakia finko eta betikotzat jotzen da eta behin betiko ordenantza argitaratzen dira.

Berez, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, iragarki honekin eranskin gisa argitaratzen da ordenantzaren testu osoa indarrean sar dadin.

Administrazio-bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hori guztia egoki irizten diren beste edozein errekurtso jartzeko kalterik gabe.

Irura, 2026ko otsailaren 17a.—Gorka Murua Macuso, alkatea. (1128)

*Irurako udalerrian, desgaitasuna/mendekotasuna izan eta tratamendua behar duten pertsonen familiei edo interesatuei dirulaguntzak emateko Udal Ordenantza.*

DIRULAGUNTZAREN XEDEA

Araudi honen helburua Irurako Udalerrian desgaitasuna/mendekotasuna izan eta tratamendua behar duten pertsonen edo, haur edo gazteen familiei, hileko gastuak arintzeko dirulaguntzak arautzea da. Dirulaguntza jasoko duten pertsonen edo familiek ondorengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak bete behar dituzte.

*1. artikulua. Dirulaguntzaren xedea.*

Dirulaguntza honen xedea da Irurako Udalerrian bizi diren eta desgaitasuna/mendekotasuna duten pertsonen edo hauen familiei, horretarako behar duten tratamenduaren hileko gastuaren zama arintzea.

Hori dela eta, Irurako Udalak dirulaguntzak emango dizkie, desgaitasun/mendekotasun tratamendurako zentroetara joaten diren pertsonen.

*2. artikulua. Onuradun izateko baldintzak.*

1. Iruran erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea eskaera aurkeztzen denean.

2. Desgaitasuna/mendekotasuna duten pertsonen tratamendurako zentroetara joatea.

3. Haur edo 18 urte bitarteko gazteek, % 33 baino gehiagoko desgaitasuna, edo mendekotasunean 25 puntu baino gehiago izan beharko dute.

AYUNTAMIENTO DE IRURA

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 30 de septiembre de 2025, adoptó el acuerdo de aprobar la modificación de la Ordenanza reguladora para la concesión de subvenciones a familias o personas interesadas con discapacidad/dependencia que requieran tratamiento, en el municipio de Irura.

Transcurrido el plazo de información pública sin que se hayan presentado reclamaciones el acuerdo se considera firme y definitivo y se publica la ordenanza definitiva.

En consecuencia, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica como anexo al presente anuncio el texto completo de la Ordenanza para su entrada en vigor.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la publicación, Recurso Contencioso-Administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime procedente.

Irura, a 17 de febrero de 2026.—El alcalde, Gorka Murua Macuso. (1128)

*Ordenanza Municipal para la concesión de subvenciones a familias o personas interesadas con discapacidad/dependencia que requieran tratamiento, en el municipio de Irura.*

FINALIDAD DE LAS BASES

La presente normativa tiene por objeto regular las subvenciones destinadas a paliar los gastos mensuales de las personas, o de las familias de niños/as o jóvenes del municipio de Irura, con discapacidad/dependencia que precisen tratamiento. Las personas o familias beneficiarias de la subvención deberán cumplir los requisitos que se establecen en los artículos siguientes.

*Artículo 1. Finalidad de la subvención.*

El objeto de la presente subvención es aliviar la carga del gasto mensual del tratamiento por discapacidad/dependencia, a personas que lo requieran o a familias de éstas, que residen en el municipio de Irura.

Por ello, el Ayuntamiento de Irura subvencionará, a las personas o familias de niños/as-jóvenes que acudan a los centros de tratamiento de discapacidad/dependencia.

*Artículo 2. Requisitos para ser personas beneficiarias.*

1. Estar empadronado y tener la residencia efectiva en Irura a la fecha de presentación de la solicitud.

2. Asistir a centros de tratamiento de personas con discapacidad/dependencia.

3. Niños o jóvenes hasta 18 años, deberán tener una discapacidad superior al 33 % o una dependencia superior a 25 puntos.

4. 18 urte edo gorakoek, % 65 edo gehiagoko desgaitasuna, edo mendekotasunean 50 puntu edo gehiago izan beharko dute.

5. Dirulaguntzak jasotzeko inolako debekuren batean sartuta ez egotea. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan zehaztutakoak izango dira.

6. Dirulaguntza hauek bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen batek emandako dirulaguntzekin. Nolanahi ere, ez da gain-finantzaketarik izango, eta hala gertatzen bada, dirulaguntza murriztu egingo da, dagokion gehieneko mugaraino.

### 3. artikulua. Dirulaguntzak zehazteko irizpideak.

Desgaitasuna/mendekotasuna duten eta tratamendurako zentroetara joaten diren pertsonak, edo haur-gazteen familiek, dirulaguntza jaso ahal izateko, ondorengo irizpideak kontuan izango dira, adinaren edo eskola mailaren arabera:

1. Familia unitatezat, desgaitasuna/mendekotasuna duen pertsonaren guraso eta anai-arrebak hartuko dira. Desgaitasuna/mendekotasuna duen pertsona gurasoen etxebizitzatik kanpo bizi bada, bera eta, baldin baditu, bikote eta seme-alabak osatuko dute familia unitatea.

2.

– HH, LH eta DBHn dauden haurren familiek, DBEren jasotzaileak badira edo kopuru horretako diru-sarrerak badituzte, hileko tratamendu gastuaren % 70 jasoko dute dirulaguntza moduan.

– HH, LH eta DBHn dauden haurren familiek DBE baino gehiagoko diru-sarrerak badituzte, % 35 jasoko dute dirulaguntza moduan.

– Ezgaitasuna edo mendekotasuna (2. artikuluren 4. puntuan zehaztutakoa) duten 18 urtez gorako pertsonak edo beren familiek DBEren jasotzaileak badira eta kopuru horretako diru-sarrerak badituzte, hileko tratamendu gastuaren % 50 jasoko dute dirulaguntza moduan.

– 18 urtez gorako ezintasuna edo mendekotasuna (2. artikuluren 4. puntuan zehaztutakoa) duten pertsonak edo beren familiek DBE baino gehiagoko diru-sarrerak badituzte, % 25 jasoko dute dirulaguntza moduan.

### 4. artikulua. Eskaerak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

Dirulaguntza jasotzeko eskubidea dutela uste duten familiek, udaletxean aurkeztu beharko dute eskaera, ondorengo agiri hauekin batera:

– Familia liburua.

– Gipuzkoako Foru Aldundiko Desgaitasun edo mendekotasun agiria (udalari agiria eskuratzeko baimena emanaz gero, ez da aurkeztu beharko).

– Tratamendu beharra adierazten duen txostena, tratamendu mota adieraziz.

– Tratamenduarekin aurreko urtean izandako gastuen fakturak.

– Datu ekonomikoak aztertzea nahi duten eskatzaileek –3. artikuluren 1, 3, 5 irizpideen arabera–. Uneko familia unitatearen diru-sarrerak zuri beharko dituzte: nominak, pentsioak, prestazioak eta zinpeko aitortpena sinatu.

– Eskatzailearen kontu korrontea eta titulartasuna adierazten duen bankuko agiria.

Irurako Udalak, administrazio publiko eskudunei datu-bitartekaritzako plataforma bidez (Nisae) edo bitarteko telematikoen bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak es-

4. Las personas de 18 o más años, deberán tener una discapacidad igual o superior al 65 %, o una dependencia igual o superior a 50 puntos.

5. No estar incurso en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones, señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre.

6. Estas subvenciones son compatibles con las subvenciones concedidas por otra institución pública o privada. De todas las maneras, no podrá darse ningún tipo de sobre-financiación. En el caso de que así suceda, se reducirá la subvención, hasta el límite máximo correspondiente.

### Artículo 3. Criterios para la determinación de las subvenciones.

Los criterios a tener en cuenta, para las personas o familias de niños/as o jóvenes que acudan a los centros de tratamiento de personas con discapacidad/dependencia, serán los siguientes, en función de su edad o nivel escolar:

1. Se entenderá por unidad familiar a los padres y hermanos de la persona con discapacidad/dependencia. En el caso de que la persona con discapacidad/dependencia conviva fuera de la vivienda de sus progenitores, la unidad familiar estará compuesta por el/ella y, en su caso, su pareja e hijos.

2.

– Las familias de los niños/as en Educación Infantil, Primaria y secundaria que sean perceptores de RGI o tengan ingresos de esta cuantía, percibirán en concepto de subvención el 70 % del gasto de tratamiento mensual.

– Las familias de los niños/as en Educación Infantil, Primaria y secundaria, si tienen ingresos superiores a la RGI percibirán el 35 % en concepto de subvención.

– Las personas mayores de 18 años en situación de discapacidad o dependencia (artículo 2 - punto 4), o sus familias, que sean receptoras de la RGI y cuenten con ingresos de esta cuantía, percibirán en concepto de subvención el 50 % del gasto mensual de tratamiento.

– Las personas mayores de 18 años en situación de discapacidad o dependencia (artículo 2 - punto 4), o sus familias, que sean receptoras de una cuantía superior a la RGI, percibirán en concepto de subvención el 25 % del gasto mensual de tratamiento.

### Artículo 4. Solicitudes, documentación y plazo de presentación.

Aquellas familias que consideren pueden tener derecho a la subvención, deberán presentar su solicitud en el Ayuntamiento, acompañada de la siguiente documentación:

– Libro de familia.

– Certificado de discapacidad o dependencia de la Diputación Foral de Gipuzkoa (en el caso de que se autorice al ayuntamiento para obtenerlo, no será necesario aportarlo).

– Informe que indique la necesidad de tratamiento, indicando el tipo de tratamiento.

– Facturas del año anterior del gasto realizado en el tratamiento.

– Si se desea que se valoren datos económicos –según criterios 1, 3, 5 del art. 3–, se deberá justificar la totalidad de los ingresos en el momento de la solicitud, de la unidad familiar: nómina, certificado, resolución... y declaración jurada.

– Documento bancario donde conste el número de cuenta y titularidad del solicitante.

El Ayuntamiento de Irura consultará a través de plataformas de intermediación de datos (Nisae) o por medios telemáticos a las diferentes Administraciones Públicas competentes los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan

katzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administraziok egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Irurako Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu, dirulaguntza hau eskuratu ahal izateko, administrazio publiko eskudunei datu-bitartekaritzako plataforma bidez (Nisae) edo bitarteko telematikoen bidez:

- Eskatzailearen NAN edo agiri baliokidea.
- Zerga betebeharrak egunean dituela.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela.

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

Deialdira aurkezteko nean eskatzaileak ez du zorrik izango Irurako Udalarekin, nahiz eta honi dagokionez, ez den egiaztagiririk aurkeztu behar. Bestalde, dirulaguntza ordaintzeko nean Udalarekin zorra izanez gero, ez da dirulaguntzarik emango.

Udalak berak egiaztatuko du Udal Erroldaren bidez eskatzailea irurarra den ala ez.

Eskatzaileak aurkeztutako agiriak osagabeak edo oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatzen denean, interesatuari dei egingo zaio hamar laneguneko epean akatsak zuzen ditzan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta oharretarako zuzen ez egingo ez balu, eskaria baliogabetua geratuko dela eta besterik gabe artxibatu egingo dela, indarrean dagoen araudiari jarraiki.

Eskaera onartu ondoren, udalak beharrezkoak dituen agiri edo argibide guztiak eskatu ahal izango ditu.

Jarduera baterako dirulaguntza eskaera aurkezte hutsak, dirulaguntza arautzen duten oinarri hauen edukia ezagutzea eta onartzea dakar.

Urteko deialdiak zehaztuko ditu eskaerak aurkezteko epea eta beharrezko dokumentazioa. Deialdia Alkatearen dekretuaren bidez onartuko da eta dagozkion aldizkari ofizialean argitaratuko da.

#### 5. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna.

1. Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira bai beste Herri Administrazioek emandako diru-laguntzekin edo prestazioekin bai erakunde publiko nahiz pribatuek emandakoekin, helburua eta xedea berberak izanda ere.

2. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, interesatuak edo familia unitateak ordaindu beharrekopurua hartuko da gastuztat (gastu osotik jasotako kopurua kenduta).

#### 6. artikulua. Prozeduraren instrukzioa.

Eskatutako dokumentazioa aurkeztu eta gero, dagozkion txosten teknikoaren irizpideak jarraituz, dirulaguntza eman edo alkaterearen dekretuaren bidez erabakiko da.

ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concrete en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por el interesado a cualquier Administración.

Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.

En este sentido, el Ayuntamiento de Irura va a verificar los siguientes requisitos, para poder acceder a dicha subvención, a través de plataformas de intermediación de datos (Nisae) o por medios telemáticos a las diferentes Administraciones Públicas competentes:

- DNI o documento equivalente de la persona solicitante.
- Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.
- Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social.

En el caso en que no fuera posible la realización de la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, se podrá solicitar excepcionalmente a la persona solicitante que presente la documentación en cuestión.

La persona solicitante en el momento de presentar la solicitud no deberá tener deudas con el Ayuntamiento de Irura, a pesar de que no deberá presentar ninguna justificación al respecto. En aquellos casos en los que haya deudas para con el Ayuntamiento, no se concederá ninguna subvención.

El requisito de ser vecino o vecina de Irura lo acreditará el propio Ayuntamiento mediante el Padrón Municipal.

Cuando se comprobara que la documentación presentada por la persona solicitante es incompleta o no reúne los requisitos exigidos en las presentes bases, se requerirá a la persona interesada para que en un plazo de diez días hábiles subsane los defectos formales o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, archivándose la solicitud sin más trámites, de acuerdo con la normativa vigente.

Una vez admitida la solicitud el Ayuntamiento podrá solicitar cuantos documentos o aclaraciones considere convenientes.

La mera presentación de solicitud de subvención para una actividad, implica el conocimiento y aceptación del contenido de las presentes bases que regulan su concesión.

La convocatoria anual determinará el plazo de presentación de solicitudes y la documentación necesaria. La convocatoria se aprobará por Decreto del Alcalde y se publicará en el boletín oficial correspondiente.

#### Artículo 5. Compatibilidad de las ayudas.

1. Las ayudas previstas en las presentes bases serán compatibles con las subvenciones otorgadas por otras Administraciones Públicas o entidades públicas y privadas que coincidan en su objeto o en las que se contemple la misma finalidad.

2. En el caso de concurrencia con otras ayudas, se considerará gasto la cantidad a abonar por el interesado o por la unidad familiar (excluida la cantidad percibida del gasto total).

#### Artículo 6. Instrucción del procedimiento.

Presentada la documentación requerida, siguiendo los criterios de los informes técnicos correspondientes, la subvención se concederá o se decidirá mediante Decreto del Alcalde.

**7. artikulua. Berariazko ebazpenik ez hartzea.**

Urriaren 1ekoa, 39/2015 legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 24. artikuluan aurreikusten duenarekin bat etorri, dirulaguntza eskaerak ezetsi egingo dira baldin eta, eskaerak aurkezteko finkatutako epea amaitu eta 3 hilabeteko epean, berariazko ebazpenik hartu ez bada.

**8. artikulua. Onuradunen betebeharrak.**

Honako hauek dira dirulaguntza honen onuradunek bete beharrekoak:

– Irurako Udalari aditzera eman beharko zaio, berak diruz lagundutako jarduera hau burutzeko, onuradunak beste dirulaguntzaren bat eskuratu duen.

– Zein kuota ordaindu duen tratamendu zentroan justifikatu.

– Udalari dirulaguntza honetan eragin dezakeen edozein aldaketan berri ematea, gertakariaren hurrengo 15 egunetan.

– Onuradunek indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak orokorrak bete beharko dituzte.

**9. artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa.**

Alkatetzaren Dekretu bidez dagokion erabakia hartu ostean, interesatuak tratamenduko zentroaren fakturak aurkeztu ahal ordainketak buruko dira onartutako kopurura iritsi bitarte. Salbuespen gisa ordainketa zuzenean zentroari egitea aztertuko da.

**10. artikulua. Dirulaguntza aldatzea.**

Dirulaguntza ematerako orduan kontuan izan diren baldintzak aldatzen badira, eta nolahi ere, beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik norgehiagokaren bidez laguntzak jasotzen badira, laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da.

**11. artikulua. Betebeharrak ez betetzea.**

Onuradunak deialdi honetan aurreikusten diren baldintzetaiko bat ez betetzeak, dirulaguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, Dirulaguntzetarako Orokorra den azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikulua eta harekin bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

**12. artikulua. Jarraipena.**

Gizarte Zerbitzuen Informazio Batzordeak laguntzen jarraipena egingo du, eta hobetzeko, egokitzeko edo eguneratzeko proposamenak egin ahal izango ditu.

**13. artikulua. Ordezko araudia.**

Oinarri hauetan aurreikusten ez den guztirako, Herri Erakundeek aplikatu beharreko araudiak dioena beteko da, bereziki, Dirulaguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailak 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako Legeak zehazten duen Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.

**14. artikulua. Dirulaguntzetarako bideratutako kopurua.**

Dirulaguntzetarako deialdi hau gauzatzeko 480 231 partida dago izendatuta.

Ezarritako diru-partidak ez badu behar besteko saldirik eskaera guztiei erantzuteko, udalak murrizketa bat aplikatu ahal izango du.

**Artículo 7. Falta de resolución expresa.**

De conformidad con lo previsto en el artículo 24 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las solicitudes de subvención serán desestimadas si, en el plazo de 3 meses desde la finalización del plazo establecido para su presentación, no recae en resolución expresa.

**Artículo 8. Obligaciones de las personas beneficiarias.**

Las personas beneficiarias de la presente subvención deberán cumplir con las siguientes obligaciones:

– Comunicar al Ayuntamiento de Irura si, para la realización de esta actividad subvencionada por el mismo, el beneficiario ha obtenido alguna otra subvención.

– Justificar qué cuota ha abonado en el centro de tratamiento.

– Comunicar al Ayuntamiento, dentro de los 15 días siguientes al hecho causante, cualquier modificación que afecte a esta subvención.

– Cumplir cuantas obligaciones estén establecidas con carácter general en la normativa vigente para todos los receptores de ayudas o subvenciones.

**Artículo 9. Pago de la subvención.**

Una vez adoptado el acuerdo correspondiente mediante Decreto de Alcaldía, a medida que el interesado presente las facturas del centro de tratamiento, se procederá a realizar los pagos hasta alcanzar la cantidad admitida. Excepcionalmente se estudiará que el pago se realice directamente al centro.

**Artículo 10. Modificación de la subvención.**

Cualquier alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de ayudas otorgadas por otras entidades públicas o privadas, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión de la ayuda.

**Artículo 11. Incumplimiento.**

El incumplimiento de cualquiera de las condiciones que se prevén en la presente convocatoria por parte del beneficiario, conllevará la resolución o minimización de la subvención. En todo caso será de aplicación lo señalado en el artículo 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y demás normativa concordante.

**Artículo 12. Seguimiento.**

La Comisión Informativa de Servicios Sociales realizará el seguimiento de las ayudas y podrá realizar las propuestas de mejora, adaptación o actualización que corresponda.

**Artículo 13. Normativa supletoria.**

En lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación lo dispuesto en la normativa aplicable a las Entidades Locales, especialmente la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 88/2006, de 21 de julio.

**Artículo 14. Cantidad destinada a subvenciones.**

Para la ejecución de la presente convocatoria de subvenciones está la partida 480 231.

En el supuesto de que la partida destinada no disponga de saldo suficiente para atender todas las demandas, el ayuntamiento podrá aplicar una minimización.